

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea ur hornidura, zabor bilketa eta estolderiako erroldak, 2020ko laugarren hiruhilekokoak**

Ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuak jasotzeagatik 2020ko laugarren hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen Okondoko udalerriko erroldak egin eta alkatearen dekretu bidez onetsi ziren.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientea udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2021eko otsailaren 15etik martxoaren 15era arte.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banketxe bidez bideratutako ordainketak direla-eta zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko. Zergapeko horiei 2021ko otsailaren 22an kobratuko zaie.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2021eko urtarrilaren 13a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO*